



Nombre Apellido 1 Apellido 2
Calle/Kalea Nombre, N – piso, letra
NNNNN-Municipio, TH



(01)95012345678903(10)L93903(37)220

Jaun/andre hori: Izena

Jakinarazten dizut, 2019ko abenduaren 31n elektrizitateko bonu sozialaren onuradun izateagatik, 2020kogizarte bonu termikoaren onuradun zarela.

Gizarte Bonu Termikoa zuzeneko laguntza bat da, berokuntza, ur bero sanitarioa edo sukaldea bezalako erabilera termikoen energia-horniduraren gastuak konpentsatzeko, eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzari dagokio ordaintzea.

Dagokion laguntza XXXX eurokoa da.

Ez daukagu zure banku-konturik laguntza ordaindu ahal izateko; beraz, jakinarazi behar diguzu zer banku-kontutan egin ordainketa, 10 egun balioduneko epean gutun hau jakinarazten denetik zenbatzen hasita.

Kontua jakinarazteko, edozein gailu elektronikotatik (telefono mugikorra, tableta, ordenagailua) eskura dezakezu inprimaki elektronikoa, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/111251>. Inprimaki horretan zure identifikatzailea (NAN/AIZ) eta BST-2020-NNNNN erreferentzia-kodea sartu behar dituzu. Inprimaki elektronikoki hori erabiliz gero, laguntzaren ordainketa aurreratu ahal izango da.

Aurrez aurre egin nahi baduzu, gutun honekin batera jasotako banku-kontuaren komunikazio-inprimakia bete eta Zuzenean zerbitzuko bulegoetan (goizeko 8etatik arratsaldeko 7: 30etara bitartean irekita), udaletxeetan edo posta-bulegoan aurkeztu ahal izango duzu.

Laguntzari uko egin nahi izanez gero, 10 egun balioduneko epean egin beharko duzu, gutun hau jakinarazten denetik aurrera. Horretarako, gutunarekin batera jasotako uko egiteko inprimakia bete beharko duzu, eta Zuzenean zerbitzuko bulegoetan (goizeko 8etatik arratsaldeko 7: 30etara irekita), udaletxeetan edo posta-bulegoan aurkeztu, edo, elektronikoki, <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/111251> helbidean.

Banku-kontua aldatzeko eta uko egiteko inprimakiak Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzaren atarian daude eskuragarri, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/111251>.

Maria Antonia Olabarrieta Ibarondo
Gizarte Zerbitzuen zuzendaria
Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako Saila